



**GORBEIALDEKO KUADRILLAKO
BATZARREKO AKTA**

Murgian, 2021eko urtarrilaren 19an, 17:50ean, legeak agindu bezala deialdia egin ondoren, Zuiako Udaleko bilkura-aretoan Kuadrillako Batzarraren ohiko bilkura egin da.

Agustín Otsoa Eribeko Landa jauna buru dela eta Gorbeialdeko Kuadrillako gerente-letradua den Juan María Ezkurdia Salazar idazkari-lanetan ari dela, behean, abizenen arabera ordena alfabetikoan agertzen diren batzarkideak bildu dira:

**ACTA DE LA JUNTA DE CUADRILLA DE
GORBEIALDEA**

En Murgia, siendo las 17:50 horas del día 19 de enero de 2021, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebra en el salón de reuniones del Ayuntamiento de Zuia, sesión ordinaria de la Junta de Cuadrilla.

Preside la sesión el sr. Agustín Otsoa Eribeko Landa, actúa como secretario de la misma el gerente-letrado de la Cuadrilla de Gorbeialdea, Juan María Ezkurdia Salazar, y asisten las junteras y junteros que a continuación se relacionan por orden alfabético de apellidos:

BATZARBURUA / PRESIDENTE

OTSOA ERIBEKO LANDA, AGUSTÍN

BATZARKIDEAK / JUNTEROS-AS

ALONSO MORAZA, JUAN CARLOS

ALTUNA UGARTE, LIERNI

ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA, XABIER

ANTEPARA URIBE, M.^a BLANCA

ARRANZ RUIZ DE AZUA, M.^a ARANZAZU

BALANTZATEGI BEITIA, SANTIAGO

ELORZA BERGARA, INMA

ETXEBARRIA ASTONDOA, ITXASO

GANZABAL ZURBITU, M.^a BEGOÑA

GORBEÑA GARCÍA, JAVIER

GUTIÉRREZ URKIZA, UNAI

IRCIO VEA-MURGUIA, ITZIAR

LÓPEZ DE BERGARA ASTOLA, IÑAKI

PEÑA OROBENGOA, JUAN ANTONIO

PÉREZ DE OBANOS OYARBIDE, PILAR

TELLAETXE ZARANDONA, ESTÍBALIZ

ZUAZO ZUBERO, JON

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTEN BATZARKIDEAK / JUNTEROS/AS QUE HAN
EXCUSADO SU ASISTENCIA**

IBAÑEZ GORROTXATEGI, ENEKO



Jarraian, Batzarburuak eman dio hasiera bilkurari, eta aurreikusitako gaitzerrenda jorratu da. Jarraian, erabaki hauek hartu dira:

1.- 2020.10.19ko EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Presidenteak batzarkideei galdetu die oharren bat egin nahi duten aurreko aktarekin lotuta.

Oharrik egon ez denez, akta onartu da, azaroaren 28ko 2568/1986 errege-dekretuko 91.1 artikuluan ezarritakoa betez, zeinak tokiko erakundearen antolaketa, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren legedia arautzen duen.

2.- GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENA, HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOAN IZENPETZEKOA, ONARTZEA, EGOKI IKUSTEN BADA.

Kuadrillako Batzarrari aurkeztu zaio, onar dezan, Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaren proposamena, Kuadrillak indarrean dauden arau-xedapenen arabera bete behar dituen hizkuntza-helburuak lortzeko helburua duena.

Gerenteak adierazi du hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango dela, bihurtik

A continuación, se abre el acto al público por orden de la presidencia, y se trata el orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE FECHA 19.10.2020.

El presidente pregunta a las junteras y junteros presentes si tienen alguna observación que hacer al acta de la reunión anterior.

No presentándose observaciones, queda aprobada en virtud de lo previsto en el artículo 91.1 del R.D. 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO ENTRE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA Y EL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA EN MATERIA DE FORMACIÓN Y NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA.

Se presenta ante la Junta de Cuadrilla para su aprobación, la propuesta de convenio de colaboración entre la Cuadrilla de Gorbeialdea y el Instituto Vasco de Administración Pública, en orden al logro de los objetivos lingüísticos que ha de cumplir la Cuadrilla de acuerdo con las disposiciones normativas vigentes.

El gerente comenta que la duración del convenio será de cuatro años, contados



aurrera, eta edozeinek salatu ahal izango duela epea amaitu baino lehen.

Hitzarmenak IVAP eta Kuadrilla lotuko dituen harreman juridikoa formalizatzen du, honako jardun-eremu hauetan:

- Euskalduntze/alfabetatzerako eta formazio linguistikorako ikastaroak antolatzea, 4HE mailarako.
- Euskara ikastaroetan parte hartzen duten langileak ordezkatzegatik diru-laguntzak (udal administrazioentzat soilik).
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala landu eta erabiltzea.

Hitzarmenaren edukia eta hura formalizatzeko arrazoiak aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 18 kideak bat etorrita, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA: Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmena, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arlokoa, onartzea.

BIGARRENA: Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen-ekintza guztiak sinatzeko.

3.- TURISMO BULEGOA: 2020. URTEKO MEMORIA ETA ZERBITZUAREN ESLEIPEN BERRIAREN PROPOSAMENA.

Kuadrillako turismo-bulegoari buruzko 2020. urteko memoriaren berri eman da. Memoria, ekonomia sustapenerako teknikari

a partir de mañana, pudiendo cualquiera denunciarlo con anterioridad al vencimiento del plazo.

El convenio formaliza la relación jurídica que vinculará al IVAP y a la Cuadrilla en los siguientes ambitos de actuación:

- Organización de cursos de euskaldunización/alfabetización y formación lingüística para el PL4.
- Subvenciones por sustitución del personal asistente a los cursos de euskera (solamente para administraciones municipales).
- Terminología jurídico-administrativa.
- Elaboración y uso de materiales administrativos en euskera.

Analizado el contenido del convenio y las razones que interesan su formalización, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 18 miembros presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO: Aprobar el convenio de colaboración entre la Cuadrilla de Gorbeialdea y el Instituto Vasco de Administración Pública, en materia de capacitación y normalización lingüística.

SEGUNDO: Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

3.- OFICINA DE TURISMO: MEMORIA AÑO 2020 Y PROPUESTA DE NUEVA LICITACIÓN DEL SERVICIO.

Se da cuenta de la memoria relativa a la oficina de turismo de la Cuadrilla durante el año 2020, que ha sido elaborada por la



Oihana Martínez Errastik egin du. Dokumentua Kuadrillako Batzarreko kide guztiei bidali zaie, bilera baino lehen azter dezaten.

Memorian agertzen den bezala, 2020an, Covid 19aren ondorioz, Gorbeialdeko turismo-plana, Euskadiko gainerako eskualdeetakoa eta Eusko Jaurlaritzakoa eta foru-aldundietakoa bezalaxe, nabarmen aldatu da.

Martxoaren 19an irekitzea aurreikusita zegoen, baina gobernuak ezarritako biztanleriaren konfinamendua ikusita, ekainaren 16ra arte atzeratu zen. Gainerako egutegiak aurreko urteetako dinamikarekin jarraitu du, eta azaroaren 1era arte ireki da; eta, ondoren, baita abenduko zubian eta Gabonetan zehar ere.

Ekonomia- eta eraginkortasun-arrazoiak direla eta, Kuadrillako bulegoa aldi baterako irekitzen da; hau da, bisitari-kopuru jakin baten ondorioz, hala komeni den hilabeteetan bakarrik egoten da irekita, eta ordutegirik egokiena hautatzen da, eskariari hobeto erantzuteko.

2020. urtean, bulegoa 861 orduz egon da zabalik, eta honako hau da gastuen eta diru-sarreraren zerrenda:

Gastuak guztira (24.8727,99 euro), ondorengo xehakapenaren arabera:

- Zerbitzuaren kontratua: ...22.628,11 €
- Telefonía/internet:.....901,77 €
- Garbiketa:999,30 €
- Argindarra*:420,03 €

técnica de promoción económica, Oihana Martínez Errasti. El documento ha sido enviado para su estudio a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla con anterioridad a la sesión.

Tal y como consta en la memoria, en el 2020, y debido al Covid 19, el plan de turismo de Gorbeia, al igual que el del resto de comarcas de Euskadi y del propio Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, ha variado sustancialmente.

La apertura estaba prevista para el 19 de marzo, pero visto el confinamiento de la población decretado por el gobierno se pospuso hasta el día 16 de junio. El resto del calendario, ha seguido con la dinámica de años anteriores, abriendo hasta el día 1 de noviembre, el puente de diciembre y durante la Navidad.

Por razones de economía y eficiencia, la oficina de la Cuadrilla tiene apertura temporal; es decir, solo permanece abierta durante los meses en los que hay una afluencia de visitantes que lo aconseja, y con el horario más apropiado para atender mejor la demanda.

La oficina ha estado abierta al público durante el año 2020 un total de 861 horas, y la relación de gastos e ingresos es la siguiente:

Gastos totales (24.827,99 euros), con el siguiente desglose:

- Contrato del servicio:22.628,11 €
- Telefonía/internet:.....901,77 €
- Limpieza:999,30 €
- Luz*:420,03 €



(*Oharra: argindarraren kasuan, abenduko gastua aurreikuspen bat da).

Diru-sarrerei dagokienez, Itourbaskek (Eusko Jaurlaritzan) 7.871,44 euro ordaindu ditu guztira, eta aurreikuspenen arabera, Arabako Foru Aldundiak gainerakoa ordainduko du, kostu osoa ordaindu arte. Likidazioa egiteke dagoelako alderdi hori ezin da ziurtatu, baina hala izatea aurreikusten da, memorian adierazitakoaren arabera.

Gerenteak bertaratutako pertsonen esan die, informazio gehiago behar izanez gero edo alderdiren bat argituz gero, turismoa sustatzeko teknikariak esan diola hala eskatzen duenaren eskura dagoela.

Aurrekoaren berri izan ondoren, puntu honen bigarren atalari heldu zaio, hau da, turismo-bulegoak aurten, eta, hala badagokio, datorren urtean jarraitzeko proposamenari.

Martínez Errasti andreak egindako egutegi-proposamenaren arabera, 2021erako 1.149 ordu aurreikusi ditu bulegoa irekitzeko, eta 33.600 euro inguruko kostua izango luke; horietatik 30.800 bulegoko arreta-zerbitzua emateko kontratuari dagozkio.

Gerente-letratuak jakinarazi du Kuadrillako Batzarrak hartu behar duela zerbitzua emateari edo ez emateari buruzko erabakia. Aurrekoa erabaki ondoren, kontratazio-espeditatea gauzatzeko eskumena Kuadrillako presidentziari dagozkio, SPKLren bigarren xedapen

(*Nota: en el caso de la luz el gasto de diciembre es una previsión).

En cuanto a los ingresos, Itourbask (Gobierno Vasco) ha abonado un total de 7.871,44 euros, y la previsión es que la Diputación Foral de Álava cubra el resto hasta el total del coste. Si bien no se puede asegurar dicho extremo porque está pendiente la liquidación, la previsión es que sea así, de acuerdo a lo señalado en la memoria.

El gerente comenta a las personas presentes que, en caso de precisar más información o aclarar algún aspecto, la técnica de promoción turística le ha comentado que se pone a disposición de la persona que lo desee.

Una vez dado cuenta de lo anterior, se aborda el segundo apartado del presente punto, que es el de la propuesta de continuidad de la oficina de turismo para este año y, en su caso, el que viene.

De acuerdo con la propuesta de calendario formulada por la sra. Martínez Errasti, para el 2021 se han previsto un total de 1.149 horas de apertura de la oficina y el coste estimado ascendería a unos 33.600 euros, de los que 30.800 corresponderían al contrato para la prestación del servicio de atención de la oficina.

El gerente-letrado informa que la decisión sobre el fondo de si se presta el servicio o no, debe ser adoptada por la Junta de Cuadrilla. Una vez acordado lo anterior, la competencia para llevar a cabo el expediente de contratación le corresponde a la presidencia de la Cuadrilla, de acuerdo con



gehigarrian adierazitakoaren arabera, kontratuaren balio zenbatetsiak, balizko luzapenaren kostua barne, ez duelako gaintitzen aurtengo aurrekontuko baliabide arruntan ehuneko 10.

Horiek horrela, gaia eztabaidatu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 18 kideak aho batez bat etorrita, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENENGOA: Lehiaketa deitzea, 2021ean zehar eta 2022 urtera luzatzeko aukerarekin, Turismo Informaziorako Bulegoaren arreta-zerbitzua emateko.

BIGARRENA: Kuadrillako presidenteari edo legez ordezkatzan duenari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko.

HIRUGARRENA: Zuiako Udalari eskatzea honakoa adieraz dezala: Zuiako Eztiaren Museoko bisita-zerbitzua kontratazeko ardura Gorbeialdeko Kuadrillarena izatea nahi duen.

Baiezko erantzuna jasoz gero, presidenteari ahalmena ematea, kudeaketa-agindurako hitzarmena sina dezan.

LAUGARRENA: ITOURBASK-i jakinaraztea Gorbeialdeko Kuadrillako turismo bulegoak jarraitu egingo duela.

4.- PROGRAMA TURISTIKOAK GARATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK.

lo señalado en la disposición adicional segunda de la LCSP, porque el valor estimado del contrato, que incluye el coste de una posible prórroga, no supera el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto de este año.

Expuesto lo anterior, tras debatir el asunto, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 18 miembros presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO: Convocar licitación para prestar el servicio de atención de la Oficina de Información Turística durante el año 2021, con posibilidad de prorrogarlo durante el año 2022.

SEGUNDO: Facultar al presidente de la Cuadrilla o a quien legalmente le sustituya, para que formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

TERCERO: Solicitar al Ayuntamiento de Zuia que manifieste si desea que la Cuadrilla de Gorbeialdea contrate la prestación del servicio de visitas al Museo de la Miel de Zuia.

En caso de respuesta afirmativa, facultar al presidente para la firma del oportuno convenio de encomienda de gestión.

CUARTO: Comunicar a ITOURBASK la continuidad de la oficina de turismo de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

4.- SERVICIOS DE ASISTENCIA EN MATERIA DE DESARROLLO DE PROGRAMAS TURÍSTICOS.



Orain dela zenbait urtetik hona, Kuadrillak sektoreko enpresentzako aholkularitza teknikorako zerbitzua kontratatu du, turismo-programa eta -jardueren garapena laguntzeko.

Zerbitzuak urte horietan gauzatu dituen funtzioak, Oihana Martínez Errasti ekonomiaren sustapenerako teknikariaren babespean eta ikuskaritzapean, eta Bizkaiko Gorbeialde LGEko teknikariek koordinatuta, ondorengoak izan dira, nagusiki:

- A.- Turismoaren garapenaren dinamizazioa eta laguntza.
- B.- Enpresei laguntzea, lehiakortasun-programak ezartzen eta garatzen.

Zerbitzuaren esleipedun izan zen enpresak 44.791,30 euroko kostua izan zuen 2020an, eta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak 37.103,73 euroko diru-laguntzak eman zituzten, hau da, kostuaren % 83 inguru.

Kuadrillak 2019an lizitatu zuen zerbitzu-kontratua 2020. urtera luzatu zen, eta ezin izan zen berrituz luzatu. Horregatik, Martínez Errasti andreak beste proposamen bat egin du zerbitzua kontratatzeko, Kuadrillako Batzarrean eztabaidatzeko. Guztira 1.360 ordu aurreikusten dira 2020 honetarako, eta kostua 47.600 euro ingurukoa da.

Turismo-bulegoaren kasuan bezala, gerente-letraduak jakinarazi du, kontratuaren zenbatekoagatik kontratazio-eskumena

Desde hace varios años, la Cuadrilla ha venido contratando los servicios de asistencia técnica de empresas del sector para el apoyo en el desarrollo de los programas y actuaciones turísticas.

Las funciones que ha desarrollado el servicio durante estos años, bajo la tutela y supervisión de la técnica de promoción económica, la sra. Oihana Martínez Errasti, y en coordinación con el personal técnico de la ADR Gorbeialde de Bizkaia, son principalmente las siguientes:

- A.- Dinamización y apoyo en desarrollo turístico.
- B.- Acompañamiento a empresas para la implantación y desarrollo de los programas de competitividad.

El número de horas prestadas en el año 2020 ha sido de 1.280, con un coste de 44.791,30 euros, y unas subvenciones por parte de Gobierno Vasco y Diputación Foral de Álava por importe conjunto de 37.103,73 euros, lo que supone cerca del 83% del coste.

El contrato de servicios que licitó la Cuadrilla en el año 2019 ha vencido el año pasado. Por ello, la sra. Martínez Errasti ha hecho una nueva propuesta de contratación del servicio de cara a su debate en la Junta de Cuadrilla. En ella se contemplan un total de 1.360 horas para este 2020, con un coste aproximado asciende a 47.600 euros.

Al igual que en el caso de la oficina de turismo, el gerente-letrado informa que, sin perjuicio de que por la cuantía del contrato la



Kuadrillako presidenteari dagokion arren, SPKLren bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorritz, uste duela Kuadrillako Batzarrak erabaki behar duela zerbitzua eman edo ez.

Horiek horrela, gaia eztabaidatu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 18 kideak aho batez bat etorrira, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA: Lehiaketa deitzea, 2021 urtean zehar, eta 2022 urean zehar luzatzeko aukerarekin, turismo programak garatzeko aholkularitza-zerbitzua emateko.

BIGARRENA: Kuadrillako presidenteari edo legez ordezkatzan duenari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko.

5.- BERDINTASUNERAKO EKINTZAK: 2021ERAKO PLAN OPERATIBOA.

Kuadrillako presidenteari edo legez ordezkatzan duenari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko.

Kuadrillako presidenteari edo legez ordezkatzan duenari ahalmena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko.

Dokumentua gaur goizean bidali zaie Kuadrillako Batzarreko kide guztiei.

competencia para la contratación le corresponda al presidente de la Cuadrilla, de acuerdo con lo señalado en la disposición adicional segunda de la LCSP, considera que la decisión sobre el fondo de si se presta el servicio o no, debe ser adoptada por la Junta de Cuadrilla.

Expuesto lo anterior, tras debatir el asunto, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 18 miembros presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO: Convocar licitación para prestar el servicio de asistencia en materia de desarrollo de programas turísticos durante el año 2021, con posibilidad de prorrogarlo durante el año 2022.

SEGUNDO: Facultar al presidente de la Cuadrilla o a quien legalmente le sustituya, para que formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

5.- ACCIONES PARA LA IGUALDAD: PLAN OPERATIVO PARA EL AÑO 2021.

El presidente de la Cuadrilla da cuenta del plan operativo para la igualdad de mujeres y hombres en la Cuadrilla de Gorbeialdea para el año 2021, que ha sido elaborado por la técnica de igualdad Jone Unzaga Galnares, teniendo en cuenta lo recogido en el I plan de Igualdad de la Cuadrilla.

El documento ha sido remitido esta mañana a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla.



Planaren hedadura eta garrantzia kontuan hartuta, eta aztertzeko izan duten denbora laburra kontuan hartuta, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 18 kideen aldeko botoarekin,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Onarpena mahai gainean uztea, eta Kuadrillako batzarkide guztiei otsailaren 2ra arteko epe bat ematea. Epe horren barruan, Batzarreko kide guztiek, hala nahi badute, ekarpenak edo iradokizunak egiteko aukera izango dute, edo plana onartzearen aurka agertu ahal izango dute.

BIGARRENA: Emandako epearen barruan ez badago halakorik, 2021 urteko plan operatiboa gaur egun duen erredakzioarekin onartuko da, Gorbeialdeko Kuadrillako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana garatzeko, eta Kuadrilla osatzen duten udalerrietan ezartzeko.

HIRUGARRENA: ekarpenik balego, dokumentu berri batean jasoko lirerateke, eta Kuadrillako batzarkide guztiei bidaliko litzaieke dokumentua, hala nahi badute onarpenaren aldeko edo aurkako iritzia eman dezaten. Horretarako, epe berri bat ezarriko litzateke.

Epe hori amaitu eta gero, adierazitako iritzia arabera, plana onartuko da edo atzera botako da, eta Kuadrillako Batzarrari jakinaraziko zaio emaitza.

6.- PRESIDENTZIAREN TXOSTENAK.

6.1.- Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta hobetzeko Gorbeialdeko

Dada la extensión e importancia del Plan, y el poco tiempo que han tenido para su estudio, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 18 miembros presentes

ACUERDA:

PRIMERO: Dejar su aprobación sobre la mesa, otorgando a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla un plazo que finalizará el día 2 de febrero. En dicho plazo, todos los miembros de la Junta podrán hacer si lo desean sus aportaciones o sugerencias o, en su caso, podrán mostrar su oposición a la aprobación del plan.

SEGUNDO: Si en el plazo otorgado no las hubiera, quedará aprobado con su actual redacción el plan operativo del año 2021, para el desarrollo del I Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres de la Cuadrilla de Gorbeialdea, y su implantación en los municipios que la integran.

TERCERO: Si hubiera aportaciones se recogerán en un nuevo documento que será remitido a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla para que manifiesten, si lo desean, su opinión favorable o desfavorable a su aprobación, otorgando un nuevo plazo para ello.

Una vez concluido dicho plazo, el plan quedará aprobado o rechazado de acuerdo con la opinión manifestada, comunicándose el resultado a la Junta de Cuadrilla.

6.- INFORMES DE PRESIDENCIA.

6.1.- Protocolo de Coordinación Interinstitucional para la Mejora de la



Kuadrillako erakundearteko Koordinazio Protokoloa. Jone Unzaga Galnaresek, Kuadrillako berdintasun teknikariak, 2020 urteari dagokion memoria egin du, eta berau aurkeztu du.

Presidenteak esan du Osakidetzak oraindik ez duela protokoloa sinatu, baina lanean ari direla sinatu dezan eta protokolora atxiki dadin, izan ere, Osakidetzak parte hartzea funtsezkotzat jotzen da.

Protokoloaren memoria, bilera egin aurretik bidali zaie Kuadrillako batzarkide guztiei. Bertan ez dira agertzen Ertzaintzak eskuhartu duen gertakariei dagozkien datuak, txostena egin den garaian oraindik jaso gabe zeudelako.

Presidenteak esan du, behin datuak jasota, berdintasun teknikariak memorian txertatuko dituela, eta dokumentu berria batzarkide guztiei bidaliko zaiela.

Lierni Altuna andreak, Aramaioko alkateak, galdetu du datuak eskatzerako orduan kontuan hartu den Aramaio ez dagoela Gasteizko komisaldegia eragin-eremuan. Gerenteak esan du baietz, eta, gainera, berdintasun teknikariaren esanetan, joan zen ostegunean jaso zituzten Aramaiori dagozkion datuak, baina oraindik ez dituzte txostenean sartu, Kuadrillako gainerako udalerriekin modu bateratuan egiteko helburuarekin.

Kuadrillako presidenteordeak, Begoña Ganzabal Zurbituk, esan du gehiago sakondu nahiko lukeela dokumentuan jasota dauden hainbat gairi buruz, eta sortzen diren

Atención a Mujeres Víctimas de Violencia machista de la Cuadrilla de Gorbeialdea. Se da cuenta de la memoria elaborada por la técnica de igualdad de la Cuadrilla, Jone Unzaga Galnares, correspondiente al año 2020.

El presidente comenta que Osakidetza no ha firmado aún el protocolo, si bien se está trabajando para su incorporación al mismo, porque su participación se considera esencial.

La memoria del protocolo, que ha sido enviada con anterioridad a la sesión a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla, no incluye los datos relativos a las actuaciones en las que ha intervenido la Ertzaintza porque a la fecha de su elaboración no se habían recibido.

El presidente comenta que una vez recibidos, la técnica de igualdad va a incorporar los datos a la memoria y se va a remitir la misma a todas las junteras y junteros.

La sra. Lierni Altuna Ugarte, alcaldesa de Aramaio, pregunta si a la hora de solicitar los datos se ha tenido en cuenta que dicho municipio no está asignado a la comisaria de Vitoria-Gasteiz. El gerente le comenta que sí, y que, de hecho, la técnica de igualdad le ha comentado que el jueves pasado se han recibido los datos correspondientes a Aramaio, si bien no se han incorporado a la memoria para hacerlo de manera conjunta con la del resto de municipios de la Cuadrilla.

La vicepresidenta de la Cuadrilla, M^a Begoña Ganzabal Zurbitu, comenta que le gustaría profundizar más en algunas cuestiones recogidas en el documento y



galderak argitu nahiko lituzkeela. Horregatik, berdintasun teknikariari eskatuko zaio, memoria osoa bidaltzen duenean, Kuadrillako batzarkideei galderak egiteko edo azalpenak eskatzeko aukera ematea.

6.2.- Berdintasun Teknikariak, Jone Unzaga Galnaresek, Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren 2020 urteari dagokion Memoria egin du, eta horren berri eman da.

Dokumentua Kuadrillako batzarkide guztiei bidali zaie gaur goizean. Presidenteak esan du berdintasun teknikaria interesa duen edozeinen esanetara jartzen dela, azalpen edo informazio gehigarriren bat behar izanez gero.

6.3.- Presidenteak jakinarazi du, azkeneko bileran adostu zen moduan, hiru bulego juridikori eskatu ziela hirugarren gizarte-langile bat kontratatzeo aukeren gaineko txosten bat egiteko aurrekontua bidaltzeko. Batzarrean erabaki hori hartu zen, aurretik, gerente-letraduak, adierazi zuelako ez zuela aukerarik ikusten erakundeko lanpostuen zerrendan plaza berri bat sortzeko, kontuan harturik azken urteetan estatuaren aurrekontu orokorren gaineko legeetan aurreikusitako mugak, eta baita indarrean dagoen aurrekontu orokorren legeak ezarritakoak ere.

Presidenteak esan du oraingoz aurrekontu bakarra jaso dela, eta gainerakoak jasotzeko zain dagoela, txostena egiteko kontratazioa gauzatzeko. Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa jaunak galdetu du ea Aldundiarekin

resolver algunas dudas que se le plantean. Por ello, se va a solicitar a la técnica de igualdad que cuando remita la memoria completa ofrezca a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla la posibilidad de plantear preguntas o aclarar algunos aspectos.

6.2.- Se da cuenta de la Memoria del servicio de Igualdad de la Cuadrilla de Gorbeialdea, correspondiente al año 2020, que ha sido elaborada por la técnica de igualdad Jone Unzaga Galnares.

El documento se ha remitido esta mañana a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla. El presidente comenta que la técnica de igualdad se pone a disposición de todas para las personas interesadas por si necesitan cualquier aclaración o información adicional.

6.3.- El presidente informa que, tal y como se quedó en la última sesión, solicitó a tres despachos jurídicos que remitieran presupuesto para la elaboración del informe sobre las posibilidades de contratación de una tercera trabajadora social. La decisión se tomó en la junta porque previamente el gerente-letrado había informado que no veía la posibilidad de crear una nueva plaza en la relación de puestos de trabajo de la entidad, dada las limitaciones previstas en las leyes de presupuestos generales del estado de los últimos años, y también en la ley de presupuestos generales vigente.

Comenta el presidente que de momento solo se ha recibido un presupuesto y que se está a la espera de recibir el resto para proceder con la contratación del informe. El sr. Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa pregunta si se ha



harremanik izan den, zerbitzua finantzatzeko aurtengo hitzarmena sinatzera begira. Presidenteak esan dio oraindik ezez, baina aurreikusita duela zuzendariarekin laster hitz egitea, lehen bait lehen sinatzea posible den ikusteko; izan ere, sinatu arte ezin izaten da Aldundiaren ekarpenik jaso.

7.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDE-GAIK ETA PRESAKOAK.

Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, aho batez, eta aldez aurretik presazkoa dela adierazita, gai-ordenean aurreikusi gabeko ondorengo puntua sartzea adostu du:

7.1.- 2021. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2021erako Gorbeialdeko Kuadrillako aurrekontu orokorraren espedienteen dagoen dokumentazioa ikusirik.

Kontuen eta Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde Informatiboak aldeko txostena egin duela ikusirik.

Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 18 batzarkideen aho bateko botoarekin, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA: Kuadrilla honen 2021erako Aurrekontu Orokorrari hasierako onespina ematea. Horren zenbatekoa **1.486.400,83 eurokoa** da guztira, hala gastuen orrian nola sarreraren orrian. Hona hemen laburpena, kapituluz kapitulu:

hablado ya con Diputación para la firma del convenio de este año para la financiación del servicio. El presidente le comenta que todavía no, pero que tiene previsto hablar en breve con la directora para ver si es posible firmarlo cuanto antes, porque hasta que no esté firmado no se reciben las aportaciones de Diputación.

7.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.

La Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea por unanimidad y previa declaración de urgencia, acuerda incluir el siguiente punto no previsto en el orden del día:

7.1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AÑO 2021.

Vista la documentación que obra en el expediente del presupuesto general de la Cuadrilla de Gorbeialdea para el año 2021.

Visto el dictamen favorable de la Comisión informativa de Cuentas y de Economía y Hacienda.

La Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 18 miembros presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO: Aprobar inicialmente el Presupuesto General de esta Cuadrilla para el ejercicio del año 2021, cuyo importe total asciende a la cuantía de **1.486.400,83 euros**, tanto en el Estado de Ingresos como de Gastos, cuyo resumen de capítulos es el siguiente:



GASTUEN EGOERA

A) ERAGIKETA ARRUNTAK.

1.- LANGILE GASTUAK:.....750.193,03 €.
2.- ONDASUN ARRUNTAK ETA
ZERBITZUAK EROSTEA:.....697.207,80 €.
5.- KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO
USTEKABEAK:..... 30.000,00 €.

B) KAPITAL-ERAGIKETAK.

6.- INBERTSIO ERREALAK:..... 9.000,00 €.
GUZTIRA:1.486.400,83 €.

DIRU SARREREN EGOERA

A) ERAGIKETA ARRUNTAK.

3.- TASAK ETA BESTELAKO DIRU
SARRERAK:.....3.900,00 €.
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK:
.....1.473.500,83 €.

B) KAPITAL-ERAGIKETAK.

7.-KAPITAL-TRANSFERENTZIAK:
.....9.000,00 €

GUZTIRA:.....1.486.400,83 €.

BIGARRENA: Onesten dira bai aurrekontua gauzatzeko araua bai espedientea osatzen duten inbertsioei, langileei eta lanpostuen zerrendari dagozkion eranskinak.

HIRUGARRENA: Espedientea jendaurrean jarriko da, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 15.1 artikuluan finkatutako eran eta epean.

LAUGARRENA: Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat joko da.

ESTADO DE GASTOS

A) OPERACIONES CORRIENTES.

1.- GASTOS DE PERSONAL: 750.193,03 €.
2.- COMPRAS DE BIENES CORRIENTES Y
SERVICIOS:697.207,80 €.
5.- CRÉDITO GLOBAL Y OTROS
IMPREVISTOS:.....30.000,00 €.

B) OPERACIONES DE CAPITAL.

6.- INVERSIONES REALES:.....9.000,00 €.
TOTAL:1.486.400,83 €.

ESTADO DE INGRESOS

A) OPERACIONES CORRIENTES.

3.- TASAS Y OTROS INGRESOS:
.....3.900,00 €
4.- TRANSFERENCIAS CORRIENTES:
.....1.473.500,83 €.

B) OPERACIONES DE CAPITAL.

7.- TRANSFERENCIAS DE CAPITAL:
..... 9.000,00 €.

TOTAL:.....1.486.400,83 €.

SEGUNDO: Aprobar la Norma de ejecución presupuestaria y los anexos de inversiones, y de personal y relación de puestos de trabajo, que integran el expediente.

TERCERO: Exponer dicho expediente al público a efectos de reclamaciones en la forma y plazos fijados en el artículo 15.1 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

CUARTO: Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones.



BOSGARRENA: Erreklamaziorik bada, beste erabaki bat hartuko da hilabeteko epean.

SEIGARRENA: Behin betiko erabakia arauzko moduan eta epean argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA: Arabako Foru Aldundiari espedientearen kopia bana bidaliko zaio.

8.- JAKINARAZPEN OFIZIALAK.

8.1. Vitoria-Gasteizko 2 zenbakiko Epaitegia (2020-10-26): Juan Ruiz-Cuevas Ruizek jarritako demandari buruzko zitaziozedula bidali dute.

8.2. Arabako Foru Aldundia (20-11-02): emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jardueretarako 1.607,10 euro eman dituztela jakinarazi dute.

8.3. AFAko Ingurumen eta Hirigintza Saila (2020-11-04): Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Plan Sektorialaren jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidean kuadrilla honek aurkeztutako alegazioaren aldeko ebazpena jakinarazi dute. Itziar Ircio Vea-Murguia andreak kuadrillak aurkeztu zuen alegazioa zein den galdetu du. Kudeatzaileak azaldu dio hasierako onespina eman zaion planaren dokumentuan Zuiako Kuadrillako leku guztietan agertzen zela, eta Gorbeialdeko Kuadrillakoa jartzeko eskatu zela.

8.4. AFAko Lurralde Oreka Saila (2020-11-05): jakinarazi dute TEFFFaren 4. hiruhilekoa ordaindu dutela, baldintzatu gabeko zatia 16.903,48 euro eta baldintzapeko zatia 77.745,50 euro.

8.5. Lanbide. (20-11-05): zuzendari nagusiaren ebazpena bidali dute, zeinaren

QUINTO: Si hubiese reclamaciones, adoptar nuevo acuerdo al respecto en el plazo de 1 mes.

SEXTO: Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentario.

SÉPTIMO: Remitir una copia del expediente a la Diputación Foral de Álava.

8.- COMUNICACIONES OFICIALES.

8.1. Juzgado de Vitoria-Gasteiz nº 2 (26-10-20): Remiten cédula de citación en relación con la demanda interpuesta por Juan Ruiz-Cuevas Ruiz.

8.2. Diputación Foral de Álava (02-11-20): Comunican la concesión de 1.607,10 euros para actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

8.3. Dpto. de Medio Ambiente y Urbanismo de la D.F.A. (04-11-20): Comunican la resolución positiva de la alegación presentada por esta cuadrilla en el trámite de la información pública y audiencia del Plan Sectorial de Vías Ciclistas e Itinerarios Verdes del Territorio Histórico de Álava. La sra. Itziar Ircio Vea-Murguia pregunta cuál es la alegación que presentó la Cuadrilla. El gerente le comenta que en el documento del plan que se ha aprobado inicialmente aparecía en todos los lugares Cuadrilla de Zuia y se pidió que se sustituyera por el de Cuadrilla de Gorbeialdea.

8.4. Dpto. de Equilibrio Territorial de la D.F.A. (05-11-20): Comunican el abono del 4º trimestre del FOFEL, parte no condicionada 16.903,48 euros y parte condicionada 77.745,50 euros.

8.5. Lanbide. (05-11-20): Remiten Resolución de la Directora General por la



bidez diru-laguntza bat ematen baita, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren babesean.

8.6. Saila AFAko diputatu nagusia (2020-11-05): ebazpena bidali dute, 2.012,06 euroko diru-laguntza ematen duena euskararen bidezko sozializazio-programak garatzeko.

8.7. AFaren Kultura eta Euskara saila (2020-11-23): 244. Foru Agindua bidali dute. Horren bidez, 733,33 euroko diru-laguntza eman dute kultur jarduerak garatzeko.

8.8. Legutioko Udala (20-12-15): psikologoaren lanpostua amortizatzeko izapideak hasi dituela jakinarazi du, eta Kuadrillari jakinarazi dio aukera duela bere plantillan lanpostu hori bere gain hartzeko eta Kuadrilla osatzen duten udalei zerbitzuak emateko. Itziar Ircio Vea-Murguia andreak galdetu du ea erabakirik hartu duten. Presidenteak esan dio ez dela aukera hori aurreikusten.

8.9. Legutioko Udala (21-01-18): 2021eko martxoaren 1etik maiatzaren 23ra arte, 2020ko urtarrilaren 13tik aurrera, ingurumen-technikariak udal horretan zerbitzuak ematen jarrai dezala eskatzen dute.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da halakorik egon.

Beste gairik ez dagoenez, Kuadrillako presidenteak amaitutzat eman du bilera, goiburuan adierazitako eguneko 18:40ean.

que se concede una subvención, al amparo de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo.

8.6. Dpto. Diputado General de la D.F.A. (05-11-20): Remiten Resolución por la que se concede una subvención de 2.012,06 euros para el desarrollo de programas de socialización a través del euskera.

8.7. Dpto. Cultura y Euskera de la D.F.A. (23-11-20): Remiten Orden Foral nº 244 por la que conceden una subvención de 733,33 euros para el desarrollo de actividades culturales.

8.8. Ayuntamiento de Legutio (15-12-20): Comunica que ha iniciado la tramitación para la amortización de la plaza de psicóloga y traslada a la Cuadrilla la posibilidad de que asuma en su plantilla la misma y que preste sus servicios a los ayuntamientos que integran la Cuadrilla. La sra. Itziar Ircio Vea-Murguia pregunta si se ha tomado alguna decisión al respecto. El presidente le comenta que no se contempla esta posibilidad.

8.9. Ayuntamiento de Legutio (18-01-21): Solicitan que el técnico de medio ambiente siga prestando sus servicios en ese ayuntamiento desde el 1 de marzo hasta el 23 de mayo de 2021, tal y como lo viene haciendo desde el 13 de enero de 2020.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el presidente de la Cuadrilla da por terminada la sesión, siendo las 18:40 h, del día indicado en el encabezamiento.